



EZ DATORREN ERREINUA

*Zatiak, helbururik gabeko
politika baterako*

deskarga libreko testua

EZ DATORREN ERREINUA

*Zatiak, helbururik gabeko
politika baterako*

Ez datorren erreinua

Aurkibidea

- I. Helburutasunaren erreinuaren kontra
- II. Agitzen dena ez da gobernatzen
- III. Bizitza administratutik agerian den bizitzara
- IV. Konponezina ez da galera bat
- V. Obraren kontra, erabileraren alde
- VI. Eredurik gabeko bizitza-forma
- VII. Ez datorren erreinua

I

HELBURUTASUNAREN ERREINUAREN KONTRA

Ezinezko bilakatu da politikoa pentsatzea, hari helburu bat ezarri gabe.

Aitzinamendua, hazkundea, segurtasuna, etorkizuna, trantsizioa, salbamendua: izen horiek guziek eragiketa bera estaltzen dute. Etorkizuna orainaren justifikazio bilakatzea.

Politika modernoa ez da egiten duenagatik bereizten, baizik eta hitzematen duenagatik. Bere dispositiboak izanen denaren izenean zilegitzen ditu, eta ez sekula denaren izenean.

Horrela, oraina ez da sekula benetan bizitzen. Iraganbide bat baizik ez da, beharrezko kostu bat, behin-behineko min bat. Onartzen dugu, beste norabait garamatzala segurtatzen baitzaigu.

Baina helburutasunaren erregimen horrek badu bere prezioa.

Bizitza trantsizio etengabe bilakatzen du, existentziak aldagai, egoerak baliabide.

Bizitzen den oro nahi denaren mende jartzen da.

Agitzen den oro horizonteari makurtzera behartua da.

Menpekotasun hori bera da gaur egungo boterearen muina.

Ez bortizkeria espektakularra, baizik eta zentzuaren harrapatzea etorkizunaren bidez.

Helburutasuna ez da norabide neutro bat.
Gobernu-teknika bat da.

Errealari eman beharreko arreta etenarazten du,
[oraino] hor ez denaren izenean.

Horregatik, gaur egun, politikoa denak egituraz huts egiten du agitzen denaren aitzinean.

Ez itsutasunez, printzipioz baizik.

Agitzen dena beti sobera dago helburuek
gobernatzen duten mundu batean.

Planak nahasten ditu, kontakizunak eteten,
diskurtsoak aldatzen.

Orduan, bortxaz integratu behar da, edo neutralizatu,
edo krisi izendatu.

Baieztapen xume batetik abiatzen gira: arazoa ez da
helburuak txarrak direla, baizik eta helburutasuna
bera oraina konfiskatzeko jardunbide bilakatu dela.

Ez da, beraz, helburu hobe bat proposatzea kontua.
Ezta etorkizun zuzenago bat ere. Ezta horizonte
ederrago bat ere.

Kontua da etorkizunari kentzea justifikatzeko duen
ahalmena.

Keinu hori negatiboa da. Baina erabakigarria.

Zeren orainak izanen denaren kontu eman behar
badu, ez baita sekula den bezala ezagutua izanen.

II

AGITZEN DENA EZ DA GOBERNATZEN

Agitzen dena ez da soilik gertatzen dena. Ez da ez egitate bat, ez istripu bat. Inplikatzen gaituen hori da.

Agitzen dena espero ez genuena da, ez aurreikuspen faltaz, baizik eta ezin zelako aurreikusi jadanik desitxuratu gabe.

Agitzen dena ez da ondorio bat. Beti ondotik atzematen zaizkio inguruabarrak, beti ondotik murrizten da kausetara.

Baina horiek beti berantegi heltzen dira.

Fenomenoa esplikatzen dute, beharbada; baina sekula ez hark sortzen duena.

Zeren agitzen dena haustura baita zentzu-erregimen baten barnean.

Lehen, zerbaitek bazirauen. Ondotik, ez du gehiago irauten.

Ez da administratu beharreko desordena berri bat, baizik eta pentsatu beharreko koherentzia berri bat.

Agitzen denak ez dio deus gehitzen munduari. Aldatu egiten du.

Ezin zaio nortasunik ezarri, ez da ezagutzeko modukoa; nahasmendu bat da, tarte bat, ebidentzia bat.

Agitzen denak ez du informatzen. Existentzia bat engaiatzen du diskurtso bat engaiatu aitzin.

Horregatik ez da gobernatzen uzten.

Gobernatzeak markoak eskatzen ditu, arauak, atalaseak.

Baina agitzen dena beti ateratzen da sarrarazi nahi genukeen markoetatik.

Beti saiatzen gira neutralizatzen, egitate, krisi edo
istripu gisa berriz izendatzen.

Baina eragiketa horiek alferrik saiatzen dira berez
hesten ez dena hesten.

Agitzen dena ez da zuzendu behar.

Agitzen dena ez da promesa bat.

Errealitate-soberakin bat da, oraina atzeraezin
bihurtzen duena.

Agitzen denak ez du eskatzen mendera dezagun. Senti
eta bizi dezagun eskatzen du.

III

BIZITZA ADMINISTRATUTIK AGERIAN DEN BIZITZARA

Gaur egungo botereak ez ditu subjektuak
gobernatzeko. Bizitzak gobernatzeko ditu.

Ez bizitako bizitzak, bizitza abstraktuak baizik:
neurgarriak, alderagarriak, doigarriak,
aurreikusgarriak.

Bizitza bat zenbaki bat da. Parametro multzo bat,
optimizatu beharrekoa, babestu beharrekoa,
segurtatu beharrekoa.

Berdin dio bizitza batek zer zeharkatzen duen, kalkulu
batean sartzen den bitartean.

Abstrakzio hori ez da espektakularra. Eragiketa isil bat
da.

Bizitza bereizten da hari agitu dakiokenetik. Urrun atxikitzen da nahas lezakeen orotatik.

Horrela bilakatzen da babes harrapaketa.

Zenbat eta babestuagoa izan bizitza bat, hainbat eta urrunago da agerian izatetik.

Segurtasuna ez da bortizkeriaren kontrakoa; haren forma prebentiboa da.

Bizitza segurtatua geldiarazitako bizitza da. Ez da bizitua; kontserbatua da.

Baina bizitzarik ez da zerbait agitu daitekeen tokian baizik.

Bizitzea ez da babespean sartzea. Agerian izatea da: denboraren aitzinean, besteen aitzinean, pentsaezinaren aitzinean.

Agerian izate hori ez da ez hautu bat, ez jarrera bat, ez balioztatu beharreko arrisku bat.

Bizidun izatearen baldintza bera da.

Botereak neutralizatu nahi duena ez da bizitza, baizik eta jatorrizko agerian izate hori.

Baina ez du ezabatzen. Ikusezin bilakatzen du soilik.

Agerian den bizitza ez da boteretik kanpo. Sekula bereganatzen uzten ez dena da.

Beti agertzen da han hondar bat. Ihes egiten duen zerbait. Tematzen den zerbait.

Hondar hori ez da erresistentzia antolatu bat. Ez du programarik. Ez du izenik.

Hauxe da, besterik gabe: bizitza batek beti gaintitzen duela hartaz egin nahi dena.

IV

KONPONEZINA EZ DA GALERA BAT

Gure garaia galeraren zeinupean pentsatzen ikasi
dugu.

Zentzuaren galera. Erreferentzia-puntuaren galera.
Mundu baten galera.

Diagnostiko hori engainagarria da.

Suposatzen baitu lehen izan zela osotasun ukigabe
bat. Ordena egonkor bat. Eskura zegoen zentzu
bat.

Baina galdutzat jotzen dena ez da sekula existitu.

Konponezina ez da hautsi dena. Sekula osorik izan ez
dena da.

Ez da tragedia bat, baldintza bat da.

Konponezina ezin da zaharberritzearen objektu izan,
ez sobera hondatua litzatekeelako, baizik eta sekula
ez delako horren eremukoa izan.

Konponezina ez da bete beharreko hutsune bat.

Ilusio baten bukaera markatzen du: zerbaitek osoa
izan behar zuela sinestearen ilusioa.

Horregatik ez du deitzen ez dolura, ez salbamendura.
Berriz ezagutzera deitzen du.

Munduari deus ez zaiola falta aitortzera. Munduak ez
duela huts egin izan behar zuena bilakatzeko
bidean. Ez dela osatze baten zain.

Krisi deitzen duguna kontakizun baten erortzea da, ez
errealitate batena.

Konponezinak puntu bat markatzen du:
kontakizunek jarduteari uzten dioten tokia.
Justifikazioak erortzen diren tokia. Azalpenak
zaharkitu bilakatzen diren tokia.

Ez du etsipenik sortzen. Esperantza desaktibatzen du
gobernu-teknika gisa.

Zeren egiturazko esperantzak arreta etengabe lekuz
aldatzen baitu, orainetik kanpora.

Konponezinak, aldiz, beti orainera ekartzen gaitu.

Ez harrapatu beharreko une gisa, baizik eta bizi
beharreko baldintza gisa.

Ez du erraten: « dena galdua da ». Erraten du: « ez da
deus salbatu behar ».

Eta puntu horretan berean zerbait askatzen da.

Ez erredentzio bat, baizik eta prestutasun bat.

Deus konpondu beharrik ez denean, ez da gehiago
deusen zain egon behar.

Deus zaharberritu beharrik ez denean, den hori baizik
ez da gelditzen.

Konponezina ez da esperantza guzien bukaera,
eskakizunen bukaera da.

Promesik gabeko espazio bat irekitzen du, non
posibleen agerpena berriz pentsagarri bilakatzen
den.

V

OBRAREN KONTRA, ERABILERAREN ALDE

Modernitateak obra egin du bere neurri-unitate.

Obra artistikoa, obra politikoa, obra soziala.

Balio duena ekoitzi behar da, erakutsi, gorde.

Obrak egonkortzen du. Zentzu bat finkatzen du.

Baliokidetasuna ahalbidetzen du.

Eta horregatik beragatik da beti berreskuragarria.

Obra bat gorde daiteke. Emaiza bat integra daiteke.

Ekoizpen bat kontabiliza daiteke.

Erabilera, aldiz, ez da metatzen, ez da gordetzen.

Jardunean agortzen da.

Erabilera ez da arrasto bat uzteko; egoera bat bizitzeko da.

Horregatik da erabilera balioari arrotz.

Ez da bereganatzen. Ez da kapitalizatzen. Ez da ez jabetzan hartzen, ez kontsumitzen.

Eusten zaio, praktikatzen da, sentitzen da.

Obrak aitortza eskatzen du. Erabilerak arreta eskatzen du.

Batak gordetzea suposatzen du. Bestea denboran desegiten da.

Ekoizpenak antolatutako mundu batean, erabilera sobera da. Alferrikakoa eta hauskorra.

Baina soberakin horrek berak murriztezin bihurtzen du.

Erabilerak ez du deus fundatzen. Ez du deus hitzematen. Ez du deus eskatzen.

Ez du bilatzen ez zilegitasunik ez justifikaziorik.

Zeren ez baita defendatu beharreko obrarik, ezta
zaindu beharreko zentzurik ere.

Erabilerei eustea baizik ez da gelditzen.

Liburu bat, ikuspegi horretatik, ez da obra hetsi bat.
Ez da ez monumentu, ez mezu.

Erabilerarako dispositibo bat da.

Ez du balio baieztatzen duenagatik, baizik eta
ahalbidetzen duenagatik.

Idaztea ez da sakratua ekoiztea, baizik eta posible
egitea hizkuntzaren erabilera jakin bat,
munduarekiko harreman jakin bat, entzuteko
manera jakin bat.

Balio duena ez da gordetzen. Gordetzen dena ez da
jadanik balio duena.

VI

EREDURIK GABEKO BIZITZA-FORMA

Bizitza-forma bat ez da proiektu bat. Ez da teoria batetik eratortzen. Ez da agintzen.

Ez da jo behar litzatekeen xede bat, izateko manera batean kokatzen dena baizik.

Horregatik, formalizatzeko saio orok traizionatzen du.

Eredu bilakatzen den orduko, arau bilakatzen da.
Arau bilakatzen den orduko, gobernagarri bilakatzen da.

Bizitza-forma bat ez da pluraleko lehen pertsonan adierazten.

Ez du ez komunitaterik, ez identitaterik, ez
kideatasunik fundatzen.

Ez du biltzen. Ez du federatzen. Ez du atxikimendurik
eskatzen.

Erabileretan agertzen da, keinuetan, egiteko eta ez
egiteko maneretan.

Ez da definitzen baieztatzen duenagatik, baizik eta
onartzen ez duenagatik.

Ez kontrakotasunez, baizik eta tartez.

Bizitza-forma batek ez du aldarrikatzen. Bere burua
salbuesten du.

Denborarekiko harreman batean irautean du, errealari
emandako arretan eta harrapaketa-dispositiboek
sekula harrapa ez dezaten borondatean.

Zentzu horretan da politikoki erabakigarria,
politikarian sekula erori gabe.

Ez du mundua eraldatu nahi. Bertan izateko manera aldatzen du.

Ez da deus antolatu behar. Deus federatu. Deus ordezkatu.

Orotasunari hesten utzi behar ez zaizkion bizitzak baizik ez dira.

Garrantzitsua ez da anitz izatea, baizik eta zuzen izatea.

Ez moralki, ontologikoki baizik: agitzen denari doituak, agerian, beren burua entregatu gabe; orainari atxikiak, beren burua etorkizunera proiektatu gabe.

Bizitza-forma batek ez du deus hitzematen. Ez du deus bermatzen. Ez du irteerarik irekitzen. Ez du halakorik bilatzen.

VII

EZ DATORREN ERREINUA

Ez da inolako erreinurik horizontean. Ez da eraiki beharreko etorkizunik. Deus ez da gauzatua izateko zain.

Erreinua ez da sekula hitzeman izan. Beraz, ez da bete behar.

Ez bada etortzen, ez da trabatua izan delako, baizik eta sekula ez delako hemen baizik izan.

Etorkizun batekin nahastea hura jadanik galtzea da.

Ez datorren erreinua ez da uko egite bat. Utopia gobernu-forma gisa desaktibatzea da.

Ez du beste mundu bat izendatzen, baizik eta mundu hau bizitzeko beste manera bat.

Ez du inolako adiskidetzerik iragartzen. Ez du deus konpontzen. Ez du nehor salbatzen.

Promesei bukaera ematen die, eta haiekin batera [oraino] ez denak eskatzen dituen sakrifizioei.

Erreinu horrek ez du deus ordenatzen. Ez du agintzen. Ez du epaitzen.

Horretan ezagutzen da: ez duela inolako atxikimendurik eskatzen.

Ez du ez banderarik, ez diskurtsorik, ez instituziorik.

Ez du izendatua izateko beharrik ere.

Garrantzia badu, ez da soluzio bat eskainiko lukeelako, baizik eta soluzioen inguruko galdera bera eteten duelako.

Ez datorren erreinua ez da promesa zapuztu bat.

Promesen bukaera da, eta bukaera horretatik gelditzen dena.

Bukaera horretatik abiatuz — eta hortik bakarrik — bilakatzen da posible irakurtzea, idaztea, erratea, zentzuaren administrazioari lagundu gabe.



Ez datorren erreinua

deskarga libreko testua